Imprimir formulario

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

2019ko Maiatzeko Hauteskundeak

2019ko maiatzak 26an Espainian, Europar Batasunerako, hamabi Autonomia Erkidegotako Legebiltzarretarako (denak Andaluzia, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Galizia eta Euskal Herria izan ezik) eta Zeuta eta Melillako Batzarretarako hauteskundeak egingo dira.

Hauteskunde hauetan parte hartu nahi baduzu beranduenen jota 2019ko apirilak 27an eskatu behar duzu hurrengo aukeretako baten bidez:

1. Internet bidez, ziurtagiri digitalaz/CI@ve. "CERA botorako eskaria" izapidean sartu beharko duzu, helbide honetan: https://sede.ine.gob.es/Solicitud_voto_CERA, zure Nortasun Agiri Nazionalera loturiko onarturiko ziurtagiri elektroniko baten bidez/CI@ve.

2. Internet bidez zure izen-ematearen helbidera postaz ofizioz bidalitako ITG izapide telematikorako gakoaz. "CERA botorako eskaria" izapidean sartu beharko duzu, helbide honetan: https://sede.ine.gob.es/Solicitud_voto_CERA, CTT-az baliatuta; agertzen diren jarraibideak jarraitu beharko dira eta honako dokumentu hauetako BATEN irudi-fitxategia erantsi:

- Espainiako Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
- Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportea.
- Espainiako nazionalitate ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).
- Kontsuletxeko Matrikula Erregistroko inskripzioaren Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

3. Posta arruntaz edo faxez (*), Espainian inskribatuta zauden erroldari dagokion probintziaren Hautesle Erroldaren Bulegoaren Ordezkaritza Probintzialari, deialdiaren dataren aurreko urtean inskripzioaren udalerrian gertatutako aldaketak kontuan hartu gabe. Botorako eskaria eta data bete behar duzu, sinatu eta honako dokumentu hauetako BAT erantsi:

- Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia (NAN).
- Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportearen kopia.
- Espainiako nazionalitate ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).
- Kontsuletxeko Matrikula Erregistroko inskripzioaren Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

(*) Hautesle-Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialaren helbide postala eta faxa kontsulta ditzakezu hemen: http://www.ine.es/oficina_censo/contactar_oce.htm

Hautesle-Errolda Bulegoaren Ordezkaritza Probintzialak botoa emateko dokumentazioa bidaliko dizu argibideen orriarekin beranduenen jota maiatzaren 6 edo 14an hautagaien aurkaratzea gertatuko balitz.

Bozkatzeko prozedurari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu zure Enbaxada edo Kontsuletxera, edo bestela, ondoko webguneetara: www.infoelectoral.interior.es, www.exteriores.gob.es eta www.ine.es

ATZERRIAN BIZI DIREN HAUTESLEEN BOTORAKO ESKARIA (CERA)
(INPRIMAKIAREN ATAL GUZTIAK LETRA LARRIZ BETE)

lehen abizena

bigarren abizena

izena

Jaioteguna: eguna hilabetea urtea

Identifikatzailea: ☐ NAN ☐ Pasaportea

Zenbakia

egoitza-herrialdea

hautesle inskripzioaren probintzia

hautesle inskripzioaren udalerria

Eskari honekin batera honako dokumentua aurkezten dut, “X” batez markatuta:

☐ Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia (NAN)

☐ Espainiako agintaritzak luzatutako pasaportearen kopia

☐ Espainiako nazionalitatearen ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena)

☐ Kontsuletxeko Matrikula Erregistroan inskribatuta zaudela egiaztatzen duen Ziurtagiria (inskribatuta zauden Kontsuletxe edo Enbaxadan doan luzatzen dena).

Hauteslearekin harremanetan jartzeko datuak (AUKERAZKOA):

....
telefonoa posta elektronikoa

.....-(e)n, ...(e)ko ..... aren .....a
Interesdunaren sinadura

Botorako eskaria posta arruntaz edo faxez bidali:

.....HAUTESLE ERROLDAREN BULEGOKO ORDEZKARITZA PROBINTZIALERA